

Sai zuriaren aztarnei jarraiki

Euskal Herrian

Fitxa honek sai zuriaren aztarnei jarraiki eramaten zaitu, haren lehen hatzetatik XIX. mendera arte. 1950eko urteetan, naturalistek Pirinioetako iparraldea miatu zuten, sai zuri bikoteen kopurua estimatzeko eta jakiteko non banatzen ziren. 1960ko urteetatik goiti, ugalketen jarraipenen lehen bilanak egin ziren eta, horiei esker, Ipar Euskal Herriko sai zuri populazioaren bilakaera segitu ahal izan zen.

Lehen aztarnak...

Gipuzkoako Urriagako eta Nafarroa Behereko Izturitzeko harpeetan aurkitu hondar fosildu batzuk erakusten dute sai zuriak bazirela jadanik, Euskal Herrian, Pleistozeno garaian.



Sai zuria

K.a. 3 100 urtearen eta K.o. IV. mendearen artean erabili hieroglifo

Agertu orduko, lehen gizakiek elkarrekintzak garatu zituzten nekrofagoekin. Abere hilen jateko lehian ibiltzetik, beren harremana aldatu zen eta mutualismo bilakatu Neolitoan, abelazkuntzaren lehen eragileen ondoan egoten baitziren. Jendearen aktibitateekin ukan duten harreman horren lekukotasuna bada Antzinako Egipton, «*Faraioen oiloa*» aipatzen duen hieroglifo agertzen baita III. dinastiaz geroz (Inperio Zaharra K.a. 2 635 - K.a. 2 561). Horrek erakusten du ingurumenean presentzia handia bazutela. «*Purifikatzaile sakratua, gauza okaztagarriaren suntsitzailea*», sai zuria errespetatua zen, zerbitzu ekologikoa betetzen zuen, beste nekrofagoek eta koprofagoek bezala, laborantzan eta abere hazkuntzan oinarritu gizartearen hondarkin organikoak baliatuz. Funtzio horrek, gaur egun, ez du gehiago funts handirik, salbu berezi bilakatu diren egoera batzuetan, non abelazkuntza anitz, garapen ekonomiko guti eta suntsiketa sistemarik eza metatzen baitira. Halako mutualismo testuingurua, sai zuriak dentsitate handian biltzen dituen, ez da gehiago leku batzuetan baizik ikusten, hala nola Afrikako Adarraren puntan den Sokotra izeneko uhartean, edo Djibutin.

Toponimia

Ugatzaren kasuan ez bezala, Euskal Herrian ez da sai zuriari lotu leku izenik. Claude Dendaletche-k aipatzen du «*Behi bideko emazte xuria*» izena Santa Grazin (Urdatxen) baizik ez dela ezaguna. Bearnon badute antzeko izen bat: «*Maria blanca*» Aspe eta Ossau ibarren arteko Marie-Blanche-eko lepoari izena eman diona. Luma zuriak aipatzen dira, bai euskaraz, bai bearnesez. Sai zuria negu hondarrean heldu da, bere izaera migratzailea agerraraziz eta udaberriaren hastapena markatuz; behi bidea transhumantziaren aipamena da, hain segur.

Sai zuria Euskal Herrian, XIX. mendetik 1970eko urteetara

Frantzian, XIX. mendean, sai zuria Pirinioetatik Mediterraneo ingururaino banatzen zen eta Rodano ibarrean gora joaten. Proventzako sai zurien kopurua gainbehera joan zen XX. mendearen hastapenetik 1980ko hamarkada arte.



Euskal Herritik heldu ziren bi sai zuri lastoztaturik:

. Gazte bat (Degland bilduma), Lille-ko Natur Zientzien Museoan kontserbatua zena, 1833an bildu eta Baionatik ekarri ondotik.

. Baionako Natur Zientzien Museoko erregistroan (eskuz idatzia), idatzia da sai bat bildu zutela 1935eko maiatzaren 1.ean.

Literaturan aipatu lehen behaketak:

Stéphane Duchateau-k sintesia bat idatzi zuen Pirinioetako ornitologiaren historiaz, non lehen behatzaileen oharrak aipatzen baititu:

- . Saunders-ek (1883) bikote bat aipatu zuen 1882ko martxoaren 8an, Euskal kostaldean.
- . Rochon-Duvigneaud-ek sai zuri bat ikusi zuen Ahuskitik hurbil, 1928ko udan.

Claude Dendaletche-k ohar berezi bat bildu zuen espezie horri buruz egin zituen bilaketa bibliografikoen kariatara: «Uztaritzeko Louis Dassance jaunak argitaragabeko (eta segur ere geroztik galdutako!) eskuizkribu baten kopia erakutsi dit, zeinaren titulua baitzen: Pirinio Garaietan eta Apaletan behatu hegaztien —pasaiaiko direnen eta egoten direnen— katalogoa. Lan interesgari hori E. Prestat Baionako Natur Zientzien Museoko kontserbatzaile ohiari zor diogu. Gure hegaziari eskaini paragrafo laburrean, irakur daiteke: *«Sedentarioa eta pasaiakoa izanik, udaberrian mendian egiten du habia, Urtsuan eta Arranomendin, eta handik joaten da itsasoak hondartzan uzten dituen animalia hilen jatera.»*

. N. Mayaud-ek sai heldu bat seinalatu zuen, Saran (Larrunen), 1936ko uztailaren 8an; sai heldu bat Larrainen (Holzarten), 1938ko martxoaren 21ean; sai heldu bat Lizarrietan 1939ko maiatzaren 29an; 7 sai (hainbat heldu barne), Larrunen, 1939ko maiatzaren 31n; 3 sai Larrun Ttikin (Azkaine), 1939ko ekainaren 5ean; eta sai heldu bat Ur Ertsiren ondoan (Azkaineren eta Donibane Lohizuneren artean), 1946ko agorrilaren 18an.

. J.-F. eta M. Terrasse-k eta F. Spitz-ek sai bat ikusi zuten Iratin 1956ko agorrilaren 4an.

. C.V. Van Den Berghen-ek idatzi zuen habia Larraineko labarretan zuen bikote bat bazela 1963ren eta 1966ren artean (gaur egun ere badira); eta Justens-ek espezieko hegazti batzuk ikusi zituen Santa Grazin (Urdatxen), 1969ko uztailan (gaur egun ere badira).



Euskal Herriko sai zuriaren ugalketaren segimenduaren antolaketa

Ornitologoentzat, mendian harrapariei behatzea zoramen eta plazer iturri da. «Zaletasun» bat baino gehiago da: naturalisten elkarte bateko kideek ikertzen dituzten espeziei buruz gehiago ikasteko gogoia ere partekatzen dute. Gero, populazioen dinamismoari eta pairatzen dituzten mehatxuei buruzko galderak heldu dira. Arrangura hori oraino biziagoa zen 1950eko eta 1960ko urteetan, harrapari espezie anitz ahultzen ari zirelako, «kaltegarri» gisa ikusiak baitziren eta suntsituak edo pestiziden eta karraskari ttipien kontrako borrokaren zeharkako biktimak...

Ikuspegi aldaketari eta harraparien kontserbazioaren desafioen kontuan hartzeari esker, ornitologoen metodo zorrotzak garatu dituzte hegaztien populazioen bilakaera estimatzeko, bai demografiaren aldetik, bai espazioaren aldetik. Beraz, naturalisten elkarten lanak zaintza eta elkarlan aktiboko herritar jokabide batean sartzen dira, hegaztien populazioei buruzko ikerketa programa zientifikoen bidez.

Euskal Herrian, habiak egiteko lekuen bilaketa 1960ko urteetan hasi zen

Normandiatik heldu zen Bernard Brailion-ek, bai eta Jean-François eta Michel Terrasse-k zituzten lehen bilaketak egin.

Lehenik, ibilaldi horiek Pirinioetako iparraldean egonlekuak atzematea ahalbidetu zuten, eta gero habia gehienak ondoko hamarkadan atzeman zituzten.

. 1959an: Bernard Brailion-ek sai helduak ikusi zituen Biduzeko iturrian (Biduzeri Lapiotz edo Urbeltzeta ere erraten zaio).

Terrasse anaiek habia multzo anitz aurkitu zituzten 1970eko hamarkadaren hastapen-hastapenean, Euskal Herrian.

. 1961etik 1964 arte, bi bikote atzeman zituzten Santa-Grazin eta beste bi Larrainen.

. 1963an, bikoteak identifikatu zituzten Ortaizen eta Ezterenzubin.

. 1969an, Behorlegin eta Mendiben agertu ziren.

1975etik goiti, Jean Curutcharry, Saiak elkarteko sortzaileetarik bat, sai zurien habiak Euskal Herrian xerkatzen zituen taldean sartu zen.

B. Brailon-ek lehen sintesia egin zuen, 1959an hasirik eta 1986 arte segiturik. 27 urteko ikerketa horretarik ondorioztatu zuen Pirinioetako iparraldeko sai zuri populazioa zinez egonkor gelditu zela arte hortan. Denbora hartan, 14 leku kontrolatzen zituzten Euskal Herrian.

1991n, Robert Etchegarray ONCko zaintzaileak **Euskal Herriko lehen lo egiteko tokia** aurkitu zuen eta hango sai kopurua kontatzen aritu zen urte bereko martxoaren 4tik irailaren 4a arte. 1992an, Dimitri Marguerat-ek (Saiak-en eta gero Saiak / Euskal Herriko CPIE jardueren barnean) segida hartu zuen.

2005eko uztailan, orduan Saiak-eko kide zen Yann Toutain-ek **lo egiteko bigarren toki bat aurkitu zuen** Euskal Herrian, lehen tokitik 7 km-tan.

2000ko hamarkadaren hastapenean, sai zuriaren ugalketaren segimenduak antolatu ziren, Frantziako Estatuaren laguntzarekin

Saiak-ek parte hartzen zuen, eta egiten zituen sai zuriaren eta Ugatzaren segimenduen emaitzak F.I.R. erakundeari (Fonds d'intervention pour les Rapaces) ematen zizkion: hots, Jean-François et Michel Terrasse-k 1969an sortu erakundeari. 1998tik goiti, F.I.R. erakundea LPOko Mission Rapaces bilakatu zen eta harraparien aldeko lanean segitu zuen.

2001ean, **Pirinioetako Ugatzaren sarea** (Réseau Percnoptère Pyrénées) garatu zen; erakunde bakoitza bere lekuko koordinatzaileak ordezkatzeko. Nature Midi Pyrénées (Nature en Occitanie bilakatu dena) egiturak, Pirinioetako Parke Nazionalak, LPOk eta Saiak-ek bertan hastapenetik parte hartzen dute. Geroztik, beste egitura batzuk sartu dira sarean: Office National de la Biodiversité (OFB, lehenago ONCFS zena), Groupe d'Etudes Ornithologiques Béarnais (GEOB), Réserve Naturelle Régionale du Pibeste, Pays de l'Ours – ADET, Nature Comminges, Office National des Forêts, Association des Naturalistes de l'Ariège, Ligue pour la Protection des Oiseaux (Aude-ko ordezkariak), Groupe Ornithologique du Roussillon, Fédération des Réserves Naturelles Catalanes eta Hegalaldia.

Pirinioetako iparraldean, Erick Kobierzyckik koordinazioa segurtatzen du, hasieran LPO Aquitaine groupe Pyrénées-Atlantiques erakundearekin eta Pyrénées vivantes taldearekin; eta, 2016az geroz, Nature en Occitanie elkartearen gerizan.

Sai Zuriaren Sendotzeko 2002-2007ko Plan Nazional bat (Plan National de Restauration du Vautour percnoptère 2002 / 2007) plantan eman zen eta, gero, espezie horren aldeko 2015-2024ko **Ekintza Plan Nazionalak** segida hartu zuen. Egitura horrek eginbide hori segurtatzen du, gidaritza batzordearekin loturik. Koordinazio teknikoaren haren eskualdea baino zabalago den eremu batean hedatzen da, planeko operadoreek lagundurik, eta eskualdeko operadorea(k) hautatzen d(it)u mendigune bakoitzarentzat.

2018 : Euskal Herriko lo egiteko tokietako sai zurien segimendua telemetro bidez egiteko proiektua

Lo egiteko 2 tokietako sai zurien kopuruaren segimenduak arreta gehiago pizten du 2013az geroz. Hegaztien segimendua telemetro bidez egiteko teknika berriak gero eta fidagarriago eta eraginkorrago dira, GPS sentsoreak berezkoak dituzten balizen (eguzki energia erabiltzen dutenen) baliatzeari esker. Aukera berriak eskaintzen dituzte sai zuriak Euskal Herriko espazioan ikertzeko eta espezie horren jokabideak hobeki ezagutzeko, bereziki lo egiteko tokiez egiten duen erabilerari buruzkoak. Orduan, satelite bidezko segimenduaren proiektua ezinbesteko urrats gisa agertzen da sai zurien ezagutzaren hobetzeko, Euskal Herrian, migrazioan, eta negua pasatzeko lekuetan.

Proiektua espezieari buruzko ikerketa programa zientifikoei elkarlanean iragaten da (CRBPO, Muséum National d'Histoire Naturelle, CEFECNRS). Sai zuriaren aldeko Ekintza Plan Nazionalaren xedeetan sartzen da.

Leader Euskal Mendia ekimenak proiektu hori ontzat eman du 2017ko abenduaren 13ko programazio-batzordean.

2019ko uztailan, habian ziren bi gazte GPS baliaz hornituak izan dira: Anhauze eta Errobi izenekoak. 2019ko uztailan airatu dira. 2020ko maiatzean, Errobi gaztea Kayes hiriarren ekialdean zen, Baoulé ibaiaren Parke Nazionalatik



hurbil. Anhauze non zegoen adierazi diguten azken datuak Maroko hegoaldetik hedatu dira, Aljeriako mugatik hurbil den eskualde batetik. Esperantza dugu Komunikazio Mugikorretako Sistema Orokorrak estali eremu batean sartuko dela, noizbait, haren ibilbidearen segida jakin dezagun.



Argazkia: Jean Curutcharry.

Sai zuria Euskal Herrian xerkatzen eta haren ugaltzea segitzen parte hartu edo parte hartzen duten behatzaileen zerrenda:

François Laspreses, Javier Vasquez, Beñat Iribarne eta Anhauzeko talde famatua, Ximun eta Eñaut Changala, Jean-Paul & Ashley Serre, Luc eta Martine Gonzalez, Serge & Josette Raoult, Jean Curutcharry, Michel Clouet, Alain Pagoaga, Jean-Louis Semeteys, Francis Lartigau, Nicole Gouadon, Sébastien Lapeyre, David Gailliez, Iker eta Régine Elozegi, Jacques eta Marikita Gaillard, Lander Goñi, Bastien Labadie, Jakes Larre, Etienne Legay, Bertrand eta Paulette Olinet, Margot Pouchain, Imanol Amestoy, Philou eta Babeth Clerc, Xabi Darthayet, Aurélien André, Martin Le Bourgeois, Adam Wentworth, Danièle Palet, Viviane Hassenforder, Dimitri Marguerat, Guillaume de Priester, Jean-Christophe Natorp, Manuela Ducros, Kristelle Merguen, Isabelle Rebours, Jean eta Georgette Desbarbes, Henri Mondiet, Michel Duvalard, René Tridon, Albert Pourre, Nathalie Savalois, Karsten Schmale, Beñat Merle, Nicole Etchegoyen, Patxi eta Sauveur Garat, Bertrand Messana, Inès Chabagno, Dimitri Guignon, Eliza Urtizberea, André eta Pascale Garo, Monique de Benedetti, Nathalie Boireau, Jean eta Willy Freeman...

Bai eta ere:

Bernard Braillon, Dominique Ardouin, Jean-François eta Michel Terrasse, Martine Razin, Alain Garbay, Yann Toutain, Christina Raymond, Philippe Benech, P. Martinez, Christiane Leconte, Stéphane Devisse...

Gehiago jakiteko

Bibliografia

. Arribas, O. 2004 – Fauna y paisaje de los Pirineos en la Era Glaciar. Lynx Edicions. Barcelone.

. Braillon (B.) 1987.- La nidification du Vautour percnoptère *Neophron percnopterus* sur le versant nord des Pyrénées, un suivi d'ensemble commencé il y a 27 ans. *Actes du premier Colloque d'Ornithologie Pyrénéenne*, Seix (Ariège). *Acta Biol. Montana* 7 : 101-113.

. Constantin Ph., Kobierzycki E. & Montes E. 2016.- *Plan national d'actions en faveur du Vautour Percnoptère Neophron percnopterus 2015–2024*. Ministère De l'Ecologie, du Développement durable et de l'Energie. Paris.

. Dendaletche C. - Notes sur quelques oiseaux des montagnes basques : Gypaète, Percnoptère, Vautour fauve, Milan royal. Remarques éthologiques toponymiques et ethnographiques. *Bulletin du Musée basque* n° 54 (4e trimestre 1971).

. Dendaletche C. 1978. - Montagnes et civilisation basques. Denoël. Paris

. Duchateau S. 2011. Histoire et bibliographie de l'ornithologie des Pyrénées françaises. Groupe Ornithologique des Pyrénées et de l'Adour Pau. 704 p.

. Elozegi I. 1989. -Synthèse bibliographique et recherches. *Acta biologica montana*. Série Documents de travail N° 3.

. La Marie-Blanche 2015. - Numéro spéciale Bernard Braillon. *Revue ornithologique du G.E.O.B* (Groupe d'Etudes Ornithologiques Béarnais). Vol. 17.

. Moleon (M.), Sanchez-Zapata (J.A.), Margalida (A.), Carrette (M.), Owen-Smith (N.) & Donazar (J. A.) 2014. - Humans and Scavengers : The Evolution of Interactions and Ecosystem Services. *BioScience* 64 : 394-403.

. Fiche projet Leader : leader.lurraldea.net

. News letters Saiak 1 et 2